

mendia › IBILBIDEAK



Gorospil gainetik ikusmena ederra da; urrunean eta erdian, Atxuria. ALLANDE SOKARROS

Bizkailuzeren haritik

Itsasu eta Ezpeleta herrien aldegainean eta Atxuria, Urtsu eta Artzamendi artean ibilaraziko gaitu txangoak

ALLANDE SOKARROS

Oinez ibiltzen hasteko abiapuntu izango dugu Itsasu herriaren goi aldean dagoen Legarreko lepoa (350 m). Haranea eta Laxia auzunak lotzen dituen bideak xarmagarritik bertaratzen da. Legarreko lepoan ibilgailuak trabarik ez egiteko gisan baztertuta utzi ondoren, tinda horiekin seinalatuta dagoen lurbide batean hasiko gara ibiltzen. Hortik aurrera jarraitzeak leku berera eramango bagintu ere, berehalaxe uztea eta ote maldaren gora Ezkondrai gailurrera (550 m) igotzea gomendatzen dizuegu. Izan ere, beste kasu askotan gertatu ohi den bezala, piramide baten tankerako mendixka xume eta polit honi inork ez dio arreta gutxiarik ere egiten, eta ibiltzaile ia guztiek gailur auzo duen Mondarraini soilik begiratzen diote.

Ezkondrai gainak oparitzen dugun bista miresgarria gozatzeko denbora hartu ondoren — Nafarroa eta Gipuzkoa arteko lurraldeetatik Landetako kostaldera eta Zuberoa zein Biarnoko mendi gorretara zabaltzen da —, erabat hegoalderat jarraituz Amezketako leporaino (526 m) apurtxo bat jaitsi-



Ezkondrai malda saihetsetik bueltan; urrunean, Urtsu mendia. ALLANDE SOKARROS

Erreferentziak

- 00:00 Legarreko lepoa
- 00:30 Ezkondrai gailurra
- 01:30 Mondarrain gailurra
- 02:00 Urrezi gailurra
- 02:30 Gorospil gailurra
- 03:30 Zuharreteako lepoa
- 04:30 Amezketako lepoa
- 05:00 Legarreko lepoa



Desnibela 650 m
Zailtasuna * * * * *
Luzera 13 km
Denbora 5 ordu



ko gara. Hemen berriro ere topo egingo dugu ibilbide seinalatuarekin, eta, bitan zatitzen delarik, ezker aldekoa, hots, Mondarraingo iparreko malda nahiko aldapatsuan gora eramango gaituena aukeratu dugu.

Bagasti txiki bat igaro ondoren, Mondarraingo gailurraren harikaitz harresia ipar-ekialdetik igaroko dugu, xenda seinalatuak bertara garamatzen ozka batetik. Ibiltzaile askok eta askok dakite Mondarrain gainak (749 m) eskaintzen duen ikusmen zabal eta liluragarriaren berri. Erromatzen garaiko gotorleku baten aztarnak badira ere hemen, zalan-tza izpirik ere ez dago gailur hau gure arbasoen zelatagune eta babesgune bat izan zela. Mondarrain ezagutua da, halaber, eskaladan trebatzeko leku gisa. Gorenean berrogei metro egiten dute harkaitzek, eta horretarako egokituak izan baitira.

BIZKAILUZETIK GOROSPILERA. Mondarrainetik hegoaldeko maldatik jaitziko gara, seinale horiei jarraituz. Bisn-bisean dugun gailurra Urrezi gaina da (693 m), eta agur egitera joango gatzazkio. Arrailduraz josita dagoen hegieren hariari jarraituz edo malda saihetsetik dabilen xenda seinalatuak, Zuharreteako lepoa (586 m) joango gara. Hemen bai, ibilbide seinalatuari utziko diogu, eta hegieren hari hartuko. Hortxe hartuko dugun bizkar luze horrek izena du... Bizkailuze, hain zuzen ere. Zuharreteako lepoan eskuinalderat hartzen duen ibilbide seinalatuak, berriz, Atxulegi eta Erebi gailu-

«Herrian bizi; herrian lan egin»

Mezu horrek adierazten duen nahikunde gauzatu dute Itsasuko pilota plazaren eta Sanokí gelaren alboan dagoen Krakada izeneko tokiaren kudeatzaile Mirentxu Elizalde eta Emile Harizpuruk. Bi itsasuar gazte hauek aldi berean okindegi, gozotegi eta taberna den leku bat bizi arazten dute. Lehenago Artzamendi hotela zen egoitza hau Itsasuko Udalak erosi zuen garaian, herrian bertan euren lanbidea sortzeko asmoa zuten gazteen esku ezartzeko xedearekin. Halaxe gertatu da Krakada irekitzearekin. Azipimarratzeko da salguene arrunt bat baino gehiago dela leku hau, zeren eta erakusketei harrera egiten baitiote eta Itsasuko gazterien bilgune bilakatu baita.

rrek osatzen duten mendixka leporra eramango gaitu. Horrek beste behingo txango batentzako aukera emango digu.

Bizkailuzeko hegi ordoki goxoari jarraituz, inguruan hurbilago edo urrunago, begi bazka izango ditugu Alkuruntz, Artzamendi, Atxulegi, Atxuria, Baigura, Erebi, Garralda, Goramakil, Goramendi, Irubelakaskoa, Larrun eta beste hainbat eta hainbat gailur. Azken batean, Lapurdi eta Nafarroa arteko mugaren zaindari Gorospil gailurra (691 m) zapatuko dugu. Hemendik, Gorospilko lepora (662 m) jaitzita eta mugaren haritik ekialderat jota, Estebenborda bentaren ingurura helduko gara. Hortxe harrapatuko ditugu GR10 eza-gunaren seinale zuri eta gorriak, eta, bueltari emanda, iparralderat jota jarraituko ditugu. Azken batean, orain arte jarraitu dugun Bizkailuzeko hegieren ekialdeko maldan ibiliko gara, lehenago igaro garen Zuharreteako leporaino iritsi arte.

Hementxe, aldiz, GR 10 ibilbidea utzita, Urrezi eta Mondarrain gainek ekialdetik saihetsaraziko digugun xenda bat hartu beharko dugu, eskuinaldetik apur bat behera eginda. Xenda honen abiagunea ikustea ez dela oso erraza gogoan eduki behar dugu, baina behin topatu ondoren, goxo-goxo eta bazter ezin ederragoak gozatu. Amezketako lepora eramango gaitu. Aldi honetan bai, lehen agurtu dugun Ezkondrai gaina saihesten duen eta tinda horiz seinalatu den lurbideari jarraituko diogu, abiagunea izan dugun Legarreko leporaino iritsi arte.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraltziaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net



aurrera doan herria

